

KULTURA-CULTURA / SIDRA-SAGARDOA

Sagardoa eta itsasoa, historikoki loturik.

LEIRE - 21/03/2013 · 17:07

Sin comentarios



Bertso-saioa eman zuten atzo Astigarragako **Lizeaga sagardotegian, Jexux Mari Irazu eta Aitor Mendiluze bertsolariek**. Sagardoa eta itsasoaren arteko harremana izan zuten hizketagai, aspaldidanik estuki lotuta baitaude biak.

XVI. mendean Ternuara joateko itsasontziak prestatzen zituzten garai honetan, martxoaren amaieratik apirilaren hasierara bitartean, hain zuzen. Gipuzkoako eta Ipar Euskal Herriko itsasontzi asko eta asko Pasaiaiko portutik ateratzen ziren apirilean. Lehentxeago beraz, 8 hilabete inguru irauten zuen bidaia luzerako beharrezkoak ziren elikagai, edari eta tresnak lortzeko lanetan aritzen ziren. Eta nola ez, sagardoa izaten zen

edari eta elikagai preziatuenetako bat marinel euskaldunen artean. Eguneko eta pertsonako 2 litro sagardo eramaten zituzten itsasontzian, gutxi gorabehera. Beraz, XVI. mendean sagardoa komertzializatzeko garaia izaten zen hau eta baserrietatik portuetarako merkataritza mugimendua izugarri handia izaten zen.

Gaur egun, sagardoa komertzializatzeko garaia antzekoa da (urtariletik apirilera bitartekoa), baina modua zertxobait aldatu da. Sagardotegietan, sagardoa txotx-etik dastatu eta ezagutzeko aukera paregabea dago orain, ondoren, urte osoan zehar, botilan edan nahi den sagardoa zein izango den aukeratu ahal izateko.

Tags: Aitor Mendiluze, itsasoa, Jexux Mari Irazu, Lizeaga, mar, sagardoa, Sidra, Terranova

Anterior post

Sagardoetxea y las sidrerías Bereziartua, Petritegi y Zelaia obtienen el certificado SICTED.
Sagardoetxea y las sidrerías Bereziartua, Petritegi y Zelaia obtienen el certificado SICTED.
Sagardoetxeak eta Bereziartua, Petritegi eta Zelaia sagardotegiek SICTED ziurtagiria eskuratu dute.
Sagardoetxea y las sidrerías Bereziartua, Petritegi y Zelaia obtienen el certificado SICTED.

Siguiente post

Curiosidades del mundo de la sidra: la rama de fresno, signo de sidra de buena calidad. Sagardoaren munduko bitxikeriak: lizar adarra, kalitate oneko sagardoaren erakuse.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 8
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurraldea.com
www.sagardoarenlurraldea.com

[RSS Feed](#)
[Twitter](#)
[Facebook](#)

Categorías

[Azokak-Ferías](#)
[Besteak-Otros](#)
[Ekitaldiak-Eventos](#)
[Esperientziak-Experiencias](#)
[Formazioa-Formación](#)
[Gastronomia-Gastronomía](#)
[Kultura-Cultura](#)
[Lehiaketak-Concursos](#)
[Museos-Museoak](#)
[Sagarra-Manzana](#)
[Sagastia-Manzana](#)
[Sidra-Sagardoa](#)
[Sidrerías-Sagardotegiak](#)
[Sin categoría](#)
[Turismoa-Turismo](#)

Post Recientes



Maiatzak 11, probaketa Bereziartua sagardotegian.



Musika giroa alaitzeko udaberriko giro paregabean.



6.000 bisitari inguru izan ditugu Aste Santuan Sagardoaren Lurraldean.



Euskal Sagardoaren Museoa eta Santiagomendi ingurua, "Euskadiko Biodibertsitatea" ekimenaren hurrengo naturguneak.



IV. Sagar Martxa ospatuko da igandean Heranin.